

## EUSKARAZ FEMENINOAK EGITEKO IZAN DIREN BIDEEZ

1997-I-23

*Andres Iñigo  
Patxi Salaberri,  
Onomastika batzordeko kideak*

Egungo egunean izen toponimikoak umeei jartzeko dagoen joera bizi sammara dela erran daiteke. Honek arazo franko sortzen ditu izen horiek andronimo edo ginekonimotzat hartu beharrak diren erabakitzeko garaian, toki ize-nek, berez, generorik ez dutelako. Gai honi irtenbide bat emateko modua, gure ustean, euskaldunok historian zehar ibili izan ditugun eskuarteez baliatzea da-teke, era honetara lasterketak saihesten baitira, nork lehenago bere umeari izena paratuko, izen hori maskulinoa edo femeninoa izan dadin.

Badakigu, dena den, garai batean ibiltzen ziren gauza asko egun ez direla ibiltzen, hainbat bide eta prozedura modaz pasatu eta zaharkiturik daudela, eta euskaldun askorendako harrigarri gerta daitezkeela. Zernahi gisaz, beharrak eragiten, eta beste biderik ez denean dugunari edo genuenari lotu beharko, deus zentzuzkorik eginen badugu.

Hemen aurkezten ditugun datuak -dokumentazio historikotik atereak dirabestek beste datu anitez osa ditzake, guk ez baitugu erabateko eta behin-behikoa lana egiteko xederik izan. Hortaz, eta besterik gabe, ekin diezaiongun euskaldunok femeninoak egiteko baliatu ditugun bideak ikusteari. Hona he-men:

a) Generoaren mozioaren erabilera, hau da, bukaera -a jartzea. Honekin batean **-o**, **-u** edo beste bokal edo kontsonante bat agertzen da maskulinoa egiteko, baina **Mari-z** mintzatzean ikusiko dugun moduan, femeninoa izan da gure artean genero markatua, “berezia” bestela erran:

— **Aioro:** *Ayoro Garçatoyn* (Garde, LPN, 478) / **Aiora:** *Pedro d'Ayora* (Zangoza, LPN, 484).

— **Antso:** *Anso Gascueco*, *Anso Olacarizquetaco* (Ollakarizketa, XIII. m., GPrior, 119); *Anso fernandez de beorteguj* (Urrotz, 1591); **Antxo:** *Ancho Berari* (Orreaga, LPN, 488) / **Antsa.** Ikus beherago *Santso*, *Santsa*.

— **Apalo:** *Apalo* (Art., 1173, 136) / **Apala:** *Apala* (Abaigar aldean, 1206, CDIrache, 256).

— **Auru:** *Auru* (bi pertsona diferente, *GPrior.*, 108, 110); **Auriol:** *Don Auriol, Garcia Auriol* (Zaraitzu, XI. m., *Vasc.*, 33-34); **Auriolo:** *Auriolo Gardeleiz* (Zaraitzu, 1037, *Vasc.*, 34); **Aurubilitu:** *Aurubilitu de Alhegi* (sic) (Aiegi, 1072, *CDIrache*, 64); **Orio:** *Don Orio de Johan Lopiz* (Larraga, *LPN*, 309); **Oriol:** *Oriol Garceiz* (Castro, 1128-1129, *CDIrache*, 139) / **Auria:** *Auria de Essabacoiz* (Etxabakoitz, 1196, *GPrior.*, 82), *Auria Cuuiri* (Abaurrea, *LPN*, 475); **Aurubita:** *Aurubita Gomiciz de Exauarri* (Etxabarri, XII. mendearen hasieran, *CDIrache*, 101); **Oria:** *Oria* (Zazpe, *LPN*, 469); **Oriola:** *Tota Oriola* (Leire, 1121, *Irig.*, 244).

— **Bazkoare:** *Bazcoare d'Oricain* (*LPN*, 565); *Bazcoare Ilurde* (Lizarra, *LPN*, 611) / **Bazkoara:** *Bazquoara Çauala, byuda* (Zirauki, *LPN*, 591).

— **Beltxo:** *Belcho de Echeuerria* (Eraul, 1255, *Iran.*, 231); *Belcho de Yriurre* (Lizarra, 1255, *Iran.*, 251); *Belcho de Auarçuça* (*Iran.*, 262) / **Beltza:** *los fillos de Berasco de Echarri et de Belça Çuria, su muger* (Etxarri-Aranatz, 1255, *Iran.*, 247).

— **Domengo, Domingo:** *Domingo Lopez de Egozcue* (Beruete, XIII. m., *GPrior.*, 112) / **Domenga:** *Johan, fijo de Domenga* (*Iran.*, 225); *Domenga Zubico* (Galar aldean, XIII. m., *GPrior.*, 107); **Dominga:** *Dominga Lastia* (Aritzala, 1205, *GPrior.*, 135).

— **Domiku:** *Domicu Ezquerra* (Zizur zendean, 1162an, *GPrior.*, 33); *Domicu de Ochacar* (Beorburu, 1222, *GPrior.*) / **Domeka:** *Domeca de ollo* (Hiriberri-Deierri, 1563); *Domeca de yrurre, Domequa de ariçaleta, Domeca de tirapu* (Zirauki, 1573-74).

— **Eneko:** *Eneko Arçaria* (Ororbia, XIII. m., *GPrior.*, 105); *Enequo Uascoariz* (Galdio, *LPN*, 364) / **Oneka:** *Onecha Legarrecoa de Esparça* (Espartza-Galar, 1199, *GPrior.*, 102).

— **Esteben:** *Esteuen* (Ibiriku-Egueskoia, *LPN*, 458); *Esteuen* (Badoztain, ib., 459) / **Estebenia:** *Esteuenia Fornera* (Zangoza, *LPN*, 484); *dona Esteuenia Martiniz* (Esnots, ib., 510); **Estebania:** *Esteuania* (Zirauki, *LPN*, 373).

— **Frantzes:** *Françes de Larraga* (Lizarra, *LPN*, 611) / **Frantzesa:** *dona Françesa* (Lizarra, *LPN*, 608).

— **Joan:** *Johan Çarquo* (Zuñiga, *LPN*, 356); *Johan Balça* (Biloria, ib., 358); **Joane:** *Johanne lepoa* (Gauza, ib., 363); *Johanne Gorria* (Ibero, ib., 555); **Joanet:** *Johanet d'Arçi* (Iruñea, ib., 549); **Joaneto:** *Joaneto de oztiz* (Ostitz, 1608); **Juane:** *Juane perez hijo de Juane Perez* (Zirauki, 1571) / **Joana:** *Johana d'Oilleta* (Zangoza, *LPN*, 485); **Joaneta:** *Joaneta de Labayen viuda* (Malerreka, 1566); **Juana:** *Juana Maria de Lerga alias moldesco* (Elo, 1687).

— **Jordan:** *don Jordan* (*GPrior.*, 83, 1196); **Jurdan:** *don Jurdan* (Eraul, 1176-1178, *Iran.*, 225); **Jurdan:** *Miranda*, *LPN*, 620) / **Jordana:** *Jordana de*

**Cabaneta** (Zufia, 1196, *GPrior.*, 83); **Jurdana:** *Jurdana xoanerena* (Malerreka, 1540); *Jurdana de Astiz* (Alli, 1576)

— **Mantzio:** *Mancio Manz de Uilela* (Irig., 233); **Mantzo:** *Manço Oxoiz* (ib.) / **Mantzia, Maintzia:** *Mancia Gorria* (Art., XIII-XIV); *Maincia* (Berroeta, XIII. m., *GPrior.*, 112); *Maincia iacueiz* (Ausano, Imotz, XIII. m., *GPrior.*, 118).

— **Markes:** *dona Maria de Marques* (Andosilla, *LPN*, 262) / **Markesa:** *Marquesa de Araçuri* (Aratzuri, 1234, *GPrior.*, 248); *Marquesa* (Orreaga, *LPN*, 488).

— **Marko, Markolo:** *Marco Polo de la Cuesta* (Villatuerta, *LPN*, 286) / **Marka:** *la de Marca Royz* (Los Arcos, *LPN*, 333).

— **Mikel:** *Miquel de Oierza* (Galar aldean, XIII. m., *GPrior.*, 108); **Mikela:** *Miquele Iturriquo* (Galar-Zizur aldean, XIII. m., *GPrior.*, 114); *Miquele de burunda* (Jaitz, 1518); **Mikelo:** *Miquelo Veynça* (Saldias, *LPN*, 570) / **Mikela:** *Miquela de muru, Miquela de blascoain* (Etxarri-Etxauri, 1544).

— **Nabar:** gizona eskuarki. Cf. *Navarr d'Altarrabia mon marit* (Iruñea, 1253, *GPrior.*, 347); *Nauar Periz* (Elizagorria, *LPN*, 628) / **Nabarra:** emakume izena; cf. *Navarra* (Zizur edo Galar zendean, XIII. m., *GPrior.*, 114); *Nauarra* (Lizarra, *LPN*, 610).

— **Otsando:** *domno Ossando* (Esteribar, *Vasc.*, 34); **Otxando:** *Ochando de Azqueta* (Iguzkitza, 1196, *GPrior.*, 81) / **Otsanda:** *Ossanda Arçeiç* (Orobia, 1248, *GPrior.*, 319); **Otxanda:** *Ochanda* (Etxeberri, 1255, Iran., 245); *Ochanda Murieta* (Zufia, XIII. m., *GPrior.*, 122); cf., alabaina, *don Ochanda* (Iruñea, *LPN*, 548). Hau erratu bat dateke.

— **Paskoal:** *Pascoal Camarrquaiz* (Oteitza, *LPN*, 308); **Paskal:** *Pascal de Larrain, Pascal de Çulloeta* (Iruñea, *LPN*, 545); *Pascal* (Goñi, 1518) / **Paskoala:** *Pascoala* (Villatuerta, *LPN*, 307); **Paska(I)la:** *dona Pascalla d'Ayorbe, dona Pascalla* (Iruñea, *LPN*, 545); *Pascala de Urdiayn* (Etxarrentxulo, 1577). Ikus gorago aipatu dugun **Bazkoare / Bazkoara** parea.

— **Petri:** *Petri de Orçaiz mayor, Petri de Orçayz menor* (Ihabar, 1564); *Petri de guendulayn* (Gendulain-Esteribar, 1613); **Betri:** *Betri de Gorritz, Betri de Gorritte* (Beriain, 1276, *GPrior.*, 459, 450); **Petrisko:** *Petrisco de Legarre* (Lesaka, *LPN*, 567); **Petro:** *Petro Enecoiz* (Zizur aldean, XIII. mendea, *GPrior.*, 104) / **Petra:** *Petra* (Lerin, *LPN*, 629); **Petruxka:** *Petruxca Pastor* (Zangoza, *LPN*, 484).

— **Sanduru:** *Sanduru d'Arlegui* (Arlegi, XIII. m., *GPrior.*, 114); *Sanduru* (Antsoain, 1240, *GPrior.*, 281); *Sanduru* (Iruñea, *LPN*, 547); *Sanduru* (Zubizta, ib., 555); **Sandoru:** *Maria García, hija de Sandoru* (Zubiurrutia, *LPN*, 376); **Sandor:** *Sandor Oritrena* (Zirauki, 1283, *Vasc.*, 39); *Sandor Mendigorrico* (Artaxona, *LPN*, 293) / **Sandora:** *Sandora* (Aberin, *LPN*, 284, Villatuerta, ib., 307).

— **Santso:** *Sanso Undico* (Art., 1157; 221); hau berau *Sanz Unduico* moduan ere opatzen dugu (ib., 1158-59, 235); *Sanso Arceiz* (Barañain, *GPrior.*, 1195); *Sanso Miqueleyz*, (Uterga, 1226, ib., 192); **Santxo:** *Sancho Dorreco*, *Sancho Muruco* (Zizur aldean, XIII. mendean; *GPrior.*, 105); *Sancho de Echeverria alias Sancho Andi* (Eugi, 1630); **Santz:** *Sanz Azariz* (Art., 1103, 164); *Sanz Ortiz* (ib., 1157, 222); *Santz Diaz d'Esparza cerqua Pomplona* (Espirta, Art., 1312, 317) (1); **Santzo:** *Sanzo Torreundocoça* (Art., 1158, 234); *Sanzo Ortiz d'Eliçaldea* (ib., 1173, 240) / **Santsa:** *Sansa Erdinuriz* (Galar aldean, ustez, XIII. m., *GPrior.*, 107); **Santxa:** *Sancha de Berriōhaar* (Berriozar seguraski, XIII. m., *GPrior.*, 106); **Santza:** *Sanza Levita* (Art., 1157, 223).

— **Semen:** *Semen Achnareiç de Çolina* (Zoliakoa, ustez, 1198 inguruan, *GPrior.*, 100); **Semeno:** *Semeno Miqueleiz* (Barañain, 1195, *GPrior.*, 79); *Semeno Larracecoa* (Zizur zendean, 1199, ib., 103); **Xemen:** *Xemen Galuarra* (Arroitz [Arronitz], *LPN*, 278); *Xemen Sanz* (Puiu, *LPN*, 455); **Xemeno:** *Xemeno Yçurra* (Arroitz, *LPN*, 277); **Semero:** *Semero Gomiz* (Erro, 1226-1233, *GPrior.*, 199); *Semero Surra* (Etxarren, 1227, *GPrior.*, 200) / **Semena:** *Semena Gardeliz* (*GPrior.*, 8, XI-XII); **Semera:** *Semera Erassungo* (Beruete, XIII. m., *GPrior.*, 112).

— **Zurixe** (Irig., 17); **Zurilo:** *Çurilo* (Ilarregi, XIII. m., *GPrior.*, 111); **Xurio:** *Xurio de gorriti* (Oskotz, 1552) / **Zuria:** *dona Çuria* (*LPN*, 543); **Zurixa** (Irig., 117)... Cf., gainera, *Maria Curia de Olcoç* (Olkotz, 1210, *GPrior.*, 144).

Genero mozioa ibiltzeak beti ez du funtzionatzen, guztiz ere euskarak sortzeko orde egokitua baizik ez dituen izenekin:

— **Martia, Martixa:** gizonak; *Martixa de Joangorena* (Ihaben, 1552); **Martie** ere baden arren: *Martie andia de labayen* (Labaien, 1537).

Baina ez hauekin bakarrik:

— **Gartzia:** *Garcia Lascarra*, *Garcia Urdina*, gizonak biak (Artaxona, *LPN*, 296-297) (2).

Beste batzuetan **-a-dun** izenak  $\emptyset$ -dunen kideak dira, eta femeninoak:

— **Añes:** *Agnes Çapata* (Calchetas? Erbiti?, 1260 inguruan, *GPrior.*, 396); *Agnes Martineiç Subiča* (Zubitza?, 1275, ib; 457); izen hau bizirik dago oraindik Luzaiden (Añés erraten da (3) / **Añesa, Iñesa, Inesa.**

(1) Hau patronimiko moduan ere ibili izan dela dirudi, izentzat evezik (beste izen asko bezala, bestalde); cf. *Sanz Sanz* (Art., 1111, 181); *Galin Sanç* (ib., XII. m., 250). Berezko patronimikoa bat *Sanutz* zen, besteak beste: *Semero Sanuz, filio Sanz Sanz* (ib.).

(2) Gartzia giza izena ohi bada ere, behin bederen emazteki izentzat opatu dugu, ez dakigu erratu batzen ondorioz edo bestela: *Garcia, turronera* (Lizarra, *LPN*, 611).

(3) Herri honetako gure informatzailea Bartzelona etxeko Peio Kamino Kaminondo izan da. Lizarran irudiz gizonez zen *don Aynnes* ageri zaigu (*LPN*, 606), baina beste batzuetan bezala, hemen ere zatiketa faltsu baten aitzinean gaudeke.

— **Isabel:** *dona Ysabel* (Iruñea, *LPN*, 540) / **Isabela:** *donna Ysabela* (Biurrun, *LPN*, 523); *doña Isabela* (Malerreka, 1565).

— **Katalin:** *Catalin michelarenecoa* (Etxaleku, 1548) / **Katelina:** *Catherina de erasso* (Jaitz, 1472); *Catelina de olza* (Satrustegi, 1575); **Katerina:** *Catherina de bidaurre* (Estenotz, 1524).

— **Sol / Sola** (Irig., 260).

— **Zuri:** *Curi d'Eieca filia Domingo Ausano* (Burutain, 1240, *GPrior.*, 287) / **Zuria:** *Semen d'Eieca eta mater eius Curia* (ib., 286. Itxuraz *Curi d'Eieca* bera da).

Zenbaitetan, hipokoristikoekin bereziki, -o bukaera femeninoetarako ere ibiltzen da:

— **Auriko:** **Auria**-ren hipokoristikoa; *Aurico, es muda et pobra* (Adoain, *LPN*, 472).

— **Graxiko:** **Grazia**-ren hipokoristikoa; *Grayssico* (Orreaga, *LPN*, 488).

— **Maiorto:** **Maiora**-ren hipokoristikoa; *Mayorto de Aoyca* (Auza, 1537).

— **Mariko, Txariko:** **Maria**-ren hipokoristikoak; *Marico d'iriart* (Orbaitza, *LPN*, 474); *Michelco fijo de Chariquo* (Bera, ib., 529).

— **Otxandako:** **Otsanda**-ren hipokoristikoa; *Ochandaco* (Orreaga, *LPN*, 488).

Maskulinoetarako bezalaxe:

— **Axeariko:** **Azeari**-ren hipokoristikoa; *Axearico* (Orbaizeta, *LPN*, 474).

— **Mikeleko, Mitxelko:** **Mikele, Migel**-en hipokoristikoak; *Michelco, hierno de Ciguyllu* (Doneztebe, *LPN*, 529); *Miqueleco* (Amabainen, ib., 559).

— **Otxoko:** **Otsoa**-ren hipokoristikoa; *Ochoco* (Girgillano, XIII. mendea, Itxuraz, Iran., 237); *Ochoco Ferrero* (Orreaga, *LPN*, 488).

— **Peruko:** **Peru**-ren hipokoristikoa (*Peruco d'Eroz*, sic, Larunbe, *LPN*, 559).

b) **Andre** (edo **Andere**-ren, tarteka) aposizioaren erabilera, maskulinoetako **jaun**-en (eta noizbehingoa **aita**-ren) aldean. Batzuetan, halere, badirudi aposizioak aitzinetik zehaztua zegoen generoa nabarmendu besterik ez duela egiten (erdarazko **dona**-k bezala), hau da, ez duela generoa definitzeko balio:

— **Andreantsa:** *Andranssa* (*GPrior.*, 1226, 197; Oltza zendea itxuraz); *Andre Ansa* (Nabaskoze, *LPN*, 504); **Andresantsa:** *Andre Sansa Ortiz* (Art.,

XII. mendea, 250). Cf. *dona Sancha Martiniz* (Iruñea, *LPN*, 550) / **Jaunantzso: Jaun Anso Ortiz** (Larrageta, XIII. m., *GPrior.*, 126); *Jaun Anso Miqueleiz* (Uterga, 1226, *GPrior.*, 191).

— **Andrebeltza: Andre Belça** (Adoain, *LPN*, 472) / **Jaunbeltza: Jaun Belça** (Arraitza, 1235-1236, *GPrior.*, 256).

— **Andredomeka: Andre Domequa** (Etxabakoitz, 1212, *GPrior.*, 148) / **Jaundomiku: Jaun Domicu** (Larrageta, XIII. m., *GPrior.*, 126), *Jaun Domicu* (*GPrior.*, 191).

— **Andregartzia: Andre Garcia et su fijo** (Lizarra, *LPN*, 606) / **Jaungartzia: Iaun Garcia Biurrun** (Art., 1157, 225).

— **Andrelopa, Andrelopitz: Andre Lopa** (Art., 1104, 170); *Andre Lopiz* (Otsagabia, *LPN*, 504. *Andreo* “Andres”-etik ote?) / **Jaunlope: Iaun Lope**, Artaxona (1157, 229).

— **Andreoneka: Andre Oneca** (Otazu, XIII. m., *GPrior.*, 128) / **Jaune-neko: Jaun Enequo** (Sagues, 1168, *GPrior.*, 39).

— **Andresemera: Andere Semera** (Art., 1158-59, 235); *Andre Semera* (Barbatain, 1190. inguruan, *GPrior.*, 68) / **Jaunsemeno: Jaun Semeno de Barasoain** (Olendain, 1229, *GPrior.*, 206); **Jaunsemero: Jaun Semero de Gorriz** (Leire, 1109; Irig., 275).

— **Andreumea: Andre Humea Martiniz** (Aribe, *LPN*, 473) / **Jaunumea: Jaun Umea** (Etxalatz, 1243, *GPrior.*, 293).

— **Andrezuria: Andre Zuria** (Barbatain, 1190 inguruan, *GPrior.*, 68). Cf. *Dona Blanca* (Iruñea, *LPN*, 550) / **Aitazuria: Ayta Çuria** (Lizarra, *LPN*, 611); **Jaunzuria: Jaun Çuria** (Labio, 1197, *GPrior.*, 95). Maskulinoen kasuan apotizioa beharrezkoa dela irudi du, **Zuri(a)** hutsa emakume izena baitzen. Ikus A puntuia.

Batzuetan ez dugu, dakigunez, **Aita** edo **Jaun**-dun aldaerarik **Andre**-du-naren aldamenean, baina erran bezala ez dugu erabateko azterketarik egin, eta beraz, badaiteke halako batean falta diren horiek azaltzea, non edo han:

— **Andrealbira: Andre Albira** (Art., 1173, 239). *Albira*, nolanahi ere, gizon izena ere izan zitekeela irudi du. Cf. Aratzuriko *don Albira Arceiz* (1200 inguruan, *GPrior.*, 92). Banaketa ustel baten ondorea ere izan liteke hau, halere.

— **Andreasapala: Andre Apala** (Etxabakoitz, 1196, *GPrior.*, 83).

— **Andreauria, Andereauria: Andre Auria** (Art., 1157, 221); *Andere Auria* (Art., 1158-59, 235); *Andre Auria* (Uztarroze, *LPN*, 478).

— **Andrebbita** (Leire, Irig., 268).

— **Andredota:** *Andredota Enecoiz* (Galar zendea aldean, XIII. m., GPrior., 113).

— **Andregailla:** *Andregailla*, Lintzoain (LPN, 468); *Andregailla* (Artanga, Urraulgoitin, LPN, 471); *Andregailla* (Iruña, ib., 540).

— **Andregoto:** *Andregoto Galindones* (Lizarra, 1024, CDIrache-I, 7); *filia Andregoto, Pizarra Tota* (Art., 1156, 219); *Andregoto filia de Ortí d'Assiain* (Etxalatz, GPrior., 295).

— **Andremantzia:** *Andre Mancia* (Art., 1110-1119, 190).

— **Andremaria:** *Andre Maria* (Art., 1158, 232); *Andremaria de agorreta* (Doneztebe, 1541).

— **Andreona:** *Andrehona d'Echevarne* (Nafarroa Beherea, LPN, 672).

— **Andreurraka:** *Andre Urraca Lopez* (Art., 1158, 229). Hau *dona Urraca Lopez* bezala ere aurkitzen dugu (Art., 1179, 246).

Zenbaitetan ez dugu maskulinoen **jaun**-dun formen **andre**-dun aldaera femeninorik:

— **Jaunanaia:** *Jaun Ortí filius Jaun de Anaie* (Olendain, 1229, GPrior., 206). Cf. *Anaia Chipi* (ib.).

— **Jaunazeari:** *Jaun Aceari Ortiz* (Larrageta, XIII. m., GPrior., 126); **Jaunazari:** *Iaun Azari* (Art., 167, 1103).

— **Jaunbeila:** *Jaun Veila* (Leire, 1137, Irig., 275).

— **Jaunberasko:** *Jaun Berasco Ydoy* (Mañeru, 1228, GPrior., 203).

— **Jaunjoane:** *Iaun Johanne* (Bera, LPN, 567).

— **Jaunmartin:** *Iaun Martin* (Art., 1156); *Iaun Martin de Soliaga* (Art., 1157).

— **Jaunmikele:** *Jaun Miquele Gomeça* (Uterga, 1226, GPrior., 191, 219).

— **Jaunorti:** *Iaun Ortí Semeroz de Azqueta* (Art., 1157, 222). *Ortí Semero(i)z de Azqueta* bezala ere ageri da (Art., 1156-1157, 217); *Iaun Ortí* (Art., 1158, 229); *Iaun Ortí Lopez* (Art., 1158, 233); *Jaun Ortí Enequoiz* (Sagues, 1168, GPrior., 39).

— **Jaunotsoa:** *Jaun Oxoa de Ponte Regina* (Leire, 1139, Irig., 275). Badugu, dena den, *Mario(t)soa* (ikus beherago).

— **Jauntellu** (Irig., 261).

c) **Mari(a)-ren erabilera.** Hau oso arrunta da pertsona izen maskulinoekin, ginekonimoak antolatze aldera, baina toponimoekin ere maiz opatzzen

dugu, toponimo horiek etxe, herri eta bailara izenak direlarik, gehienbat. Hemen, goitiago erran gisan, garbi ikusten da genero markatugabea maskulinoa dela, eta femeninoa tankeratzeko, oraingo hotetan, **Mari(a)-z** baliatzen ginela euskaldunok. Kasuren batean, **Mariamigel-en** modukoetan, andronimo baten aldaera femeninoa gabe **Maria Migel** izen-deiturak izan ditzakegu: cf. *Maria Miguel, Martin Miguel eta Teresa Miguel*, hirurak *Miguel de Leoz-en* umeak (GPrior., Erriberri, 1288, 540-541). Hona hemen datuak:

c.1. Andronimoekin:

- **Mariandres** (Andres): *Maria Andres* (Ituren, 1718, LCR1; Zubieta, 1770-1855, LCRZ).
- **Marianton, Mariantxon** (Anton, Antxon): *Mari anton* (Doneztebe, 1645).
- **Mariabaptista** (Baptista): *Maria Baptista* (hiru aldiz azaltzen da Ituren 1718an, eta hamabi aldiz Zubietan, 1770-1855 epean; LCRZ).
- **Mariaesteban, Mariesteban, Mariestebe** (Esteban, Estebe): *Maria Esteban de oyarcun* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria esteban* (Doneztebe, 1566); *Mariesteban de Alcari* (Goizueta, 1649); *Maria Esteban* (Zubieta, 1770-1855, LCRZ).
- **Mariafermin** (Fermin): *Maria Fermin* (Ituren, 1718, LCR1).
- **Mariajoan, Marijoan, Mari joango, Mariajuán, Marijuan** (Joan, Joango, Juan): *Maria Johan* (Bidaurreta, 1518); *Maria Johan* (Ziriza, 1524); *Maria Johan de Oteyça, Maria Johan de Arrechea, Maria Juan* (Doneztebe, 1538); *Maria Juan* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria Joan de Cabaleta, Maria Joan Charracorena* (Doneztebe, 1566); *Maria Jn.<sup>o</sup> corcollena, Maria Jn.<sup>o</sup> delgorriaga* (Doneztebe, 1566); *Maria joan de Sarasa* (Garisoain, 1576); *Marijoan de barberarena* (Oieregi, 1615); *Marijoan de ardayz* (Ardaitz, 1626); *MariJoan de Lecumberri* (Esteribar, 1630); *Marijoan de echeberria* (Goizueta, 1645); *Mari Joan de Jançi* (Doneztebe, 1645); *MariJuan de Zaualeta* (Leitzá, 1649); *Maria Juan* (hiru aldiz agertzen da, Ituren, 1718, LCR1).
- **Mariamartin, Marimartin** (Martin): *Maria martin* (Eritzegoiti, 1549); *Maria Martyn petricorena* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria martyn hija de pierres* (Doneztebe, 1566); *Maria martyн* (Doneztebe, 1570); *Mari martin de ayala* (Lizarra, 1587); *Maria martin de ardanaz* (Urdaitz, 1607 inguruan); *Maria martin de yrayçoz* (Gerendiain-Ultzama, 1608); *Marimartin* (Lantz, 1612); *Marimartin de Lecumberri* (Esteribar, 1630); *Marimartin* (Ezkurra, 1647); *Marimartin ochoa* (Otsagabia, 1650); *Maria Martin* (hiru aldiz agertzen da, Ituren, 1718, LCR1).
- **Mariamatias** (Matias): *Maria Matias* (bi aldiz dokumentatu dugu Zubietan, 1770-1855 epean, LCRZ).

— **Mariamigel, Marimigel** (Migel): *Maria Miguel dermyaga moça, Maria Miguel de Joannes de goyçuela, Maria Miguel de Legargorri* (Doneztebe, 1566); *Maria Miguel Caconena* (Doneztebe, XVI. mendea); *Maria miguel de herassun* (Doneztebe, 1570); *Maria miguel de garissoayn* (Garisoain, 1576); *Maria miguel de yrigoyen* (Ituren, 1590); *Mari Miguel de Ygal* (Uxue, 1608); *Marimiguel de Yllarraz* (Ilarratz, 1634); *Maria Miguel* (bi aldiz agertzen da Iturenren 1718an [*LCRI*]) eta beste bi aldiz Zubietan, 1770-1855 epean, [*LCRZ*]).

— **Mario(t)soa** (O(t)soa, Otxoa): *Maria osoa de eraso* (Irurtzun, 1590); cf. *Osoa de Iguçcunea* (Aranguren aldekoa, 1198 inguruan, *GPrior.*, 100); *Ochoa de Amesqua* (Zufia, XIII. m., ib., 122).

— **Mari(a)urdin:** *Mari urdin de herbinea* (Erbiti, 1551); *Mari(a) urdin sabatena, Maria urdin martinena* (Doneztebe, 1566); *Maria Urdin* (Ziaurritz, 1639); *Maria Urdin* (Ituren, 1718, *LCRI*).

#### c.2. Patronimikoekin:

Zenbaitetan ez da garbi ageri **Mari**-ren gibelean dagoena zer den, espero zitekeen patronimikoa, edo patronimiko itxura duen izena (ikus d puntuau dio-guna):

— **Mariperitz:** *Mari periz gastearena* (Ituren, XVI. mendea). Cf. *Mari-peritzenea* etxe izena (Etulainen, orain).

#### c.3. Toponimoekin:

— **Mariarano** (Arano, herri izena): *Mari arano Joancorena, Maria arano muger de eztebe de gaztelu, Mari arano hija de adame, Mari arano Lopetoren, Maria arano de joancote* (Doneztebe, 1566); *Maria arano Joancorena, Maria arano de Cubierta* (Doneztebe, 1570).

— **Mariamendaro** (Mendaro, Gipuzkoako herria): *Maria mendaro de Narbarte* (Malerrekako Oteitza, XVI. mendea).

— **Mariasunbil** (Sunbill, herri izena): *Maria Sunbil* (“Sunbil”, XVI. mendea).

#### c.4. Oikonimoekin:

Puntu honetan etorkiz pertsona izenak izanagatik ere, goizdanik etxe izen bilakatu direnak aipatuko ditugu:

##### c.4.1. **Mari(a)** + gizon izena:

— **Mariagartzia, Marigartzia, Marigartx(o):** *Marigarcianena* (Ostitz, 1726-27); *Mariagarcianenea* (Irurita, 1726-27); *Marigarzia* (Arano, 1726-27); *Mariagarciarena* (Lekunberri, 1726-27); *Marigarchenea* (Leitza, 1726-27).

— **Mariamartin, Marimartin:** *Marimartinena* (Arraioz, Ondarra, 1726-27); *Mariamartinena* (Artika, 1726-27); *Marimartinena* (Erratzu, 1726-27);

*Marimartiñena* (Erratzu, 1826); *Marimartinenea* (Bera, 1726-27); *Marimartiñena* (Legasa, 1726-27).

— **Mariamigel, Marimigel:** *Mariamiguel* (Ituren, 1564tik aitzina, THVSL, 534); *Miguelico marimiguelena* (Zubiri, 1601); *Marimiguelena* (Etxaleku, 1726-27); *Marimiguelenea* (Etxalar).

— **Mariandres:** *Mariandresenea* (Adios, 1726-27).

— **Mariantxon:** *Marianchonena* (Elgorriaga, 1572tik aurrera, THVSL, 489).

— **Mariapetriko:** *Mariapetricorena* (Ituren, 1607tik aurrera, THVSL, 534).

— **Miesteban:** *Miestebarena* (Ituren, 1767az geroztik); *Miestebanbaita* (Ituren, 1788az geroztik, THVSL, 534-535).

— **Marioango, Marijuan, Marijuento:** *MariJoangorena*, *Mariguangoenea*, *Marijuangonea* (Goizueta, Hern.); *Joanes de Alssua Marioango* (Goizueta, 1648); *Marijanenena* (Etxaleku, 1726-27); *Marijuantorena* (Elbete, 1726-27); *Marijanenena* (Elizondo, Ondarra, 1726-27).

— **Marioitz:** *Marioycena* (Ituren, 1655etik aitzina, THVSL, 535).

— **Mariurdin:** *Mariurdinena* (Etxaleku, 1601); *Mariurdinarenaren* (Irurita, Ondarra, 1726-27). Cf. *Churdinena*, Etsaingo etxea, 1640an; *Urdinena*, Beerroetako etxea, 1726-27an (Ondarra).

#### c.4.2. **Mari(a) + patronimikoa (pertsona izena):**

— **Mariperitz:** *Maripericena* (Erratzu, Ondarra, 1726-27), *Mariperitzenea* (Etulain, orain).

#### c.4.3. **Mari(a) + auzo, herri edo haran izena:**

— **Maritxalar** (Etxalar herri izena??): *Marichalarrenaren* (Elbete, 1726-27).

— **Mariaoitza** (Aoitza, Auza?, herri izena) *Martin de Maria Aoyz Goldaratzten* 1578an, Maitzení egun.

— **Mariarano** (Arano, herri izena): *Joanes de mari arano* (Arribe, 1569).

— **Mariarraioz** (Arraioz, herri izena): *Maria Arraiocena* (Elbete, Ondarra, 1726-27).

— **Mariarraitza, Mariarraitza** (Arraitza, Arraitza herri izenak?): *Mariarraycena* (Sorauren, 1605); *Maria Arrainzarena* (Muru-Azterain, 1726-27).

— **Mariartze** (Artze, Donamaria): *Joanes de Mariarce* (Artze, 1590).

— **Mariauza** (Auza?, herri izena): *Mariauzarena* (Luzaide, 1726-27).

- **Maribaztan** (Baztan, bailara izena): *Maribaztanena* (Elgorriaga, 1626tik); *Maribaztanea* (Elgorriaga, 1665etik; Azterainen: Jimeno Jurío, *TCPC*); *Maribastanena* (Larraintzar, 1726-27).
- **Maribertiz** (Bertiz, jaurerri eta bailara izena): *Miguel de Maribertizena* (Legasa, 1573); *Mariberticena* (Legasa, 1726-27).
- **Maribergara** (Bergara, toponimo txiki eta nagusia): *Maribergarenea* (Doneztebe, 1797).
- **Mariezkurra** (Ezkurra, herri izena): *Mariezcurrera* (Ezkurra, 1566, 1646); *Mariezcurrera* (Etxaleku, Ezkurra, Iraizotz, 1726-27).
- **Marigartzarun** (Gartzarun, Gartzaron, herri izena): “Pedro de yabarr alias de mary garçarun vez.<sup>º</sup> de yabar” (Ihabar, 1564).
- **Marigetze** (Getze, Nafarroako bi herriren izena): *Mari Guecerena* (Arlegi, 1655; Jimeno Jurío, *TCPC*).
- **Marigorriti** (Gorriti, herri izena): *Marigorritinea* (Lekunberri, 1726-27).
- **Marilesaka** (Lesaka, herri izena): *Marilesaquena* (Leitza, 1726-27).
- **Marisubitza** (Subitza, herri izena): *Mari Subizarena* (Galar, 1723).
- c.5. Bestelakoekin:
  - c.5.1. Pertsona izen moduan ageri da:
    - **Marigabon** (Irig., 164).
    - **Marikatxalin:** *Katxalin* berez emakume izena da.
    - **Mariona** (Irig., 235).
    - **Maittipi, Mariaundi, Marittipi:** bizirik, Luzaiden.
    - **Mariabel:** *Maria arbel* (Doneztebe, XVI. mendea).
    - **Mariaxuri, Marizuri:** *Maria xurj* (Nuin, 1546); *Mari curi* (Lesaka, 1609).
  - c.5.2. Oikonimo bilakatua opatzentz dugu:
    - **Mariaurra** (cf. Aurgutia): *Mariaurra* (Luzaide, 1878); *Màrjaurráinxa* (euskaraz) / *Casa Marjáurra* (erdaraz) egun.
    - **Maribeloa:** *Maribeloarena* (Ituren, 1684tik aitzina, *THVSL*, 534).
    - **Maribeltz:** *Maribelcenea* (Arizkun, 1826).
    - **Marieder(ko):** *Mariedercorena* (Ituren, 1661tik aurrera, *THVSL*); *Mari Ederrena* (Subitan, XVI. mendetik aitzina; *TCPC*).

— **Marimotx:** *Marimochenea* (Azpilkueta, 1825).

d) Patronimikoetan oinarria bide duen -i(t)za, -(t)za bukaera (lehen puntuarekin zuzenean loturik dago beraz) (4):

— **Anitza** (berezia, femeninoa den *Ana*-tik abiatzen bada, Lersundik nahi bezala).

— **Beltranitz**

— **Domekoitza, Domikutza**

— **Joanitza**

— **Lopeitza, Lopitza**

— **Txopeitza**

— **Mikelitza**

— **Maritza** (cf. *Mariz Ezquerra*, Izarbe ibar aldean, itxuraz, XIII. m., *GPrior.*, 113).

— **Monotza, Munutza** (Munio-tik): cf. *Munuza Ortiz, Monoza Ortiz*, Galar aldean itxuraz, XIII. m., *GPrior.*, 108, 110).

— **Nekoitza** (*Eneko*-tik).

— **Otxoitza**

— **Peritza, Perotza** Periza de Olazegui (Sunbill, 1726, LCRS).

— **Saustitza** edo **Sostitza** (cf. Saustin).

e) Beste bide bat -sa, -xa erabiltzea da:

**Beti** → **Betixa:** *Betissa* (Zizur edo Galar zendean, XIII. m., *GPrior.*, 114).

**Orti** → **Ortixa:** *Orti Moza de Azterain, Orti Unzuquo* (Zizur zendean, 1162an, *GPrior.*, 33) / **Ortixa:** *Ortissa de Enassurieta* (Mañeru, 1230, *GPrior.*, 217).

**Pedro, Peru** → **Pedruxa:** *Pedrussa* (Eultz, 1255, Iran., 253).

Hala ere, inoiz edo behin **-xa** duen maskulinoa opatzen dugu:

(4) Honen hedadura eta iraupenaz honela dio F. del Valle Lersundik “Una forma del femenino y el valor de la letra «ch» como diminutivo en los nombres de los guipuzcoanos de los siglos XV y XVI”, *RIEV*, 24, 1933, 176-181 lanean:

“Por otra parte el estudio de este asunto me planteaba dos interrogaciones de interés. ¿En qué zona del país vasco (sic) se usó esta forma de construir el femenino de los nombres? ¿En qué época nació esta costumbre y cuándo desapareció? Es indudable que tal forma, aunque no muy generalizada, se usó en casi toda Guipúzcoa, en los siglos XV y XVI y que desapareció en el XVII.”

**Jaun Lopexa:** *dona Maria Lopiz, filla de Jaun Lopeyssa* (Iran., 261).

Prozedura hau **(-e)sat** atzizkiaren bidezkoa) oraindik bizirik dago Iparraldean, eta hainbat izen arrunt eta (erdi)bereziren iturburu izan da eta da. Azkeneko horien artean Luzaideko adibide gutxi batzuk aipatuko ditugu, denak oikonimoen gainean eraikitakoak: *Bartzelona* (etxe izena) → *Bartzelona* (etxe-ko nagusia) / *Bartzelonesa* (etxe-ko andrea); *Peiomoxorenea* (*Pèyomoxóinj*) → *Peiomoxo* (etxe-ko jauna) / *Peiomoxosa* (etxe-ko andrea); *Ttipittorenea* (*Ttipit-tónja*) → *Ttipítwa* (etxe-ko jauna) / *Ttipítosa* (etxe-ko andrea)...

Bukatzeko diogun maskulinoak egiteko, **Jaun-en** erabileraz gainera, del Valle Lersundik aipatzen duen **-o** erabiltzeko joera izan dela, gorago ikusi bezala: **Angelo, Anxelo, Gartzio, Marto** (= Martin, del Valle Lersundiren arabela), **Mikeo, Mitxo, Otsando** (≠ Otsanda)...

## LABURDURAK ETA ITURRIAK

**1726-1727:** Urte hauetako Nafarroako etxeen apeoa, Nafarroako Artxibo Orokorra.

**Art.:** José María Jimeno Jurío, *Documentos Medievales Artajoneses*, PV, Iruña, 1968.

**CDIrache:** Jose María Lacarra, *Colección Diplomática de Irache*, CSIC, Zaragoza, 1965, bi ale.

**GPrior.:** Santos A. García Larraueta, *El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII*, PV, Iruña, 1957, bi ale.

**Hern.:** Vicente Hernandorenai, “Goizueta’ko Etxe eta Baserri’en Izenak: 1616 urtetik - 1925’ño”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, X. zkia., 1978, 75-90.

**Iran.:** José María Jimeno Jurío, “El Libro Rubro de Iranzu”, PV, 120-121, 219-269, 1970.

**Irig.:** Alfonso Irigoien, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1994.

**LCRI:** *Libro de la Cofradía del Rosario de la villa de Ituren (1718)*, Iturenengo eliza artxiboa.

**LCRS:** *Libro de la Cofradía del Rosario de Sumbilla*, Sunbillako eliza artxiboa.

**LCRZ:** J.I. Tellechea Idígoras, “Libro de la Cofradía del Rosario de la villa de Zubietza (1770-1855)”, PV, 1970, 271-280.

**LPN:** Juan Carrasco, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Universidad de Navarra, Iruña, 1973.

**Ondarra:** Patxi Ondarra, "Apeo de Baztán (1726-27)", *Cuademos de Etnología y Etnografía*, 44. zkia., 1984.

**TCPCC:** José María Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

**TCPG:** José María Jimeno Jurío, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.

**THVSL:** Andres Iñigo Ariztegi, *Toponomástica histórica del valle de Santesteban de Lerin*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1996.

**Vasc.:** José María Lacarra, *Vasconia Medieval. Historia y Filología*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1957.

**Bestelako datuak:** Aipatu iturri eta agiri bildumetan azaltzen ez diren datuak hurrengo notariotzetatik ateraiak dira: PR-Atarrabia (Atarrabiako Proto-koiloak), 1. eta 82. karpetak; PR-Doneztebe, 7, 15, 16, 17, 18, 19 eta 25. karpetak; PR-Elo, 11. k.; PR-Gares, 1. eta 2. karpetak; PR-Goizueta, 1., 2. eta 6. karpetak; PR-Jaitz, 1. eta 5. karpetak; PR-Hiriberri-Arakil, 1., 2. eta 4. karpetak; PR-Lizarra, 1, 1-bis, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 8-bis, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 17 eta 18. karpetak; PR-Uharte-Egues, 39, 40, 41, 42, 43, 44 eta 60. karpetak; PR-Urrotz, 3, 3-bis eta 4. karpetak; PR-Zirauki, 1. eta 2. karpetak.